

## MODA ZARRA BERRITUA

- Izan omen zera Donostian, Lukas.
- Izandu naiz, bai.
- Eta zer iritzi diozu?
- Aditzia banuan Donostiarrak Joxemaritarrak zirala ta izan ere bai.
- Nola ba?
- Lujua bazala esaten zidaten Donostian, eta ala iduritzen zait, baña beste gauza bat ere iduritzen zait.
- Zer ba?
- Lujua ta pobrezia elkarren urrian ote dabilzan...
- Nola ba?
- An ikusi nituan hiru edo lau neska xostor...
- Apainduak?
- Bai, baña exka-antzia.
- Zer zuten ba?
- Soñeko ederrak bai, baña oso motzak; belaun buruetaraino bakarrik eltzen zitzaizten, eta andik beerakoa gorririk. Obe zuketean soñeko merkeagoak eta luzeagoak egitea.
- Ori baño ezpada...
- Baña geiagore bada.
- Ea ba zer?
- Emakume sasokoak...
- Apainduak?
- Bai, baina beren besoak gorririk, eta lepuak ere bai. Elitzateke asko obe, jantzi merkeagoak, baña gorputza obeki estaliko luketenak egitea?
- A Lukas gizajoa! ori oraingo moda dezu gizona, moda berri-berria.
- Ala usteko dezu zuk eta baita Joxemaritarrak ere.
- Baita mundu guziak ere.
- Mundu guziak ez. Ni ere mundukoa naiz beñipeñ, eta nik eztet ala uste.
- Zer uste dezu ba zuk?
- Moda ori, moda badare, ezta oraingo berria.
- Zer ba?
- Modarik zarrena.
- Zaarrena?
- Bai, zarren, zar guzien artian zarrena.
- Jaaai-jai! Oraindik geiagi adituko degu.
- Nai dezu aditu?
- Esaten badidazu...
- Badakizu Adanek eta Ebak zer soñeko zuten Jaungoikoak egiñ zituanian?
- Zuk eta nik jaiotzean genduan.
- Eta gero pekatu egiñ ondorean?
- Ori nik eztakit baña...
- Zuk ezpadakizu, nik esango dizut. Piku-arbola baten orriak artu, josi ta jantzi ziran.
- Jostunik bai altzan orduan?
- Berak ziran jostun.
- Ondotxo josi ote zituzten?
- Gorputzaren alderdirik bearrenak estaltzeko lañ.
- Eta gañerakoak?
- Gaurko modaren antzera.
- Gizon jakintsua zaude.
- Bai, sermoi baten aditu nuan.
- Nori?
- Egiak zarta-zarta esaten zituan Praille bati. -Penitentziaz emango bali-tzaie moda ori- esaten zuan prailleak -laster esango lukete, eziñ lezakete-la, baña deabruari atsegín emategatik...
- Eztezazula esan, gizona, orrelako gauzarik.
- Nere esana ezta, baizik Praillearena.
- Gauz oriek ikusteko etzenduan Donostiara jua bearrik.
- Enintzan jun oriek ikustera, nere ustetan.
- Errian bertan ere badituzu orrelakoak.
- Kale-aldian izango dira, nunbait, beñepeñ gure baserrietan eztet ikusi.
- Ikuskiore ez, kalera maizago etortzen ezpazera.
- Nai ere ez etorri, gauz oriek ikustekotan.

Gogoratzean Praille  
Juani aditua,  
Dirurizu zaudela  
Zerbait larritua.  
Ni berriz ikustean  
Nago arritua,  
Modaritan zarrena  
Oraiñ berritua.

Urruzunotar Pedro Migelek

# PEDRO MIGEL URRUZUNO

idazle elgoibartarra hil zeneko

75. urteurrena  
(1844-1923)



Antolatzailea

Laguntzailea



Elgoibarko Izarra K. E.



Elgoibarko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# PEDRO MIGEL

## URRUZUNO SALEGI

(1844-1923)

### BIZITZA

**P**edro Migel Urruzuno Salegi apaiza Elgoibarren jaio zen 1844. urteko apirilaren 29an, Arrabal (San Frantzisko) kaleko 110. zenbakian.

Bere gurasoak Juan Bautista Urruzuno (errementaria) eta Manuela Salegi izan ziren, biak elgoibartarrak. Aiton-amonak, berriz, Migel Urruzuno, Lorentza Kruzelegi eta Josefa Antonia Mugerza elgoibartarrak eta amaren aldeko aitona, Frantzisko Salegi, Astigarribiako.

Pedro Migel Urruzuno Lesakan bizi izan zen gaztetan eta 1870. urtean apaiz egin zen. Elgoibarko eritagian egon ondoren Eliza nagusiko Erretore izan zen 1876 eta 1879 urteen bitartean. Hala ere, ia bizitza guztia Mendaron pasa zuen, Garagartzako erretore izan baitzen 1879 eta 1890 urteen bitartean. Gero Agustiniñetan kapellau jardun zuen eta garai horretan idatzi zituen ipuin gehienak.

Apaiz eta idazle elgoibartarra 1923ko apirilaren 14an hil zen.

### IDAZLEA

**U**rruzunok ia denetik idatzi zuen: ipuinak, kontakizunak, olerkiak, gertakariak, gabon eta elizkantak eta abar. Urruzunoren idazkeraren ezaugarriarik nagusia estilo arina eta erraza zuela zen, edozeinek ulertzeko modukoa. Bere lan gehienetan umorea erabili zuen barra-barra, ziri sartzeak eta adar-jotzeak ere izugarri gustatzen zitzaizkion. Lan ugari argitaratu zituen bere garaiko hainbat aldizkaritan. Sarri, gaitzizenez sinatzen zituen bere idatziak, esaterako, "Urzale", "Urruzuno P. M." eta "Neskazarren lagun bat". Urruzunok eguneroko bizitza arruntean bilatu zituen bai gaiak baita pertsonaiak ere. Eta idatzi ere herri xumearentzat idatzi zuen.

### OBRA

**P**edro Migel Urruzunok idatzitako ipuinekin osaturiko sei liburu aurki daitezke:

- "Urruzunotar P.M.en Ipuiak. Lehenengo idaztia". Iruñan, 1930ean. 47 ipuin eta Kilimon Errekari egindako bertsoak.
- "Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk". Auspoa liburutegia, 1961, 20 ipuin.
- "Iru ziri" (ipuin eta bertsoak). Auspoa liburutegia, 1965, 19 ipuin.
- "Sasi-letrau baten ziria, ta abar", Auspoa liburutegia, 1973. urtea, 19 ipuin.
- "Ipuinak". Euskal Editoreen Elkarteak Klasikoak sailean jasotako ipuin bilduma.

## LITERATUR

### ASTE

Urruzuno akorduan hartuta

## EGITARRAUA

### MAIATZAK 5, asteartea

19:00 MAHAINGURUA

"Literatura eta abertzaletasuna".

**Partehartzaileak:** Hasier Etxeberria, Mikel Hernandez Abaitua, Iñaki Perez Armendia eta Esteban Antxustegi.

**Moderatzailea:** Andres Alberdi.

**Lekua:** Kultur Etxea

### MAIATZAK 7, osteguna

19:00 MAHAINGURUA

"Zergatik dago hain emakume gutxi literaturan?".

**Partehartzaileak:** Arantxa Urretabizkaia, Arantxa Iturbe, Yolanda Arrieta eta Miren Agur Meabe.

**Moderatzailea:** Miryam Villasante.

**Lekua:** Kultur Etxea.

### MAIATZAK 8, ostirala

19:00 "TENTAZIOAK"

**Ipuin liburuaren aurkezpena.**

Jasone Osoro, liburuaren egilea, eta Xabier Mendiguren, idazle eta editorea.

**Lekua:** Kultur Etxea.

### MAIATZAK 15, ostirala

22:00 "LORELEI" taldearen kontzertua.

**Lekua:** Herriko Antzokia.